

BALOREZKO PROPOSAMENAK


Gure produktuaren balorezko proposamenak aurkeztuko ditugu, gure produktua azaltzen eta hainbat adibide jarritz.

Guk eskaintzen dugun produktua, boligrafo kontagailu bat da. Horrez gain beste baliabide batzuk ere eskaintzen ditugu. Adibidez produktuaren bateria eta tintaren portzentaia ikusteko aukera edota tintaren kolorea aldatzeko aukera ere izango dute gure bezeroak.

Gure produktua bezeroei erosotasuna eskeintzen diogulako nabarmentzen da. Boligrafo "normal" bat izan arren, beste ezaugarri esanguratsu batzuk ematen diegu idazterako momentuan.

Edozein pertsonentzat egina dago, bere erabilera oso erraza delako, baina batez ere gazteentzat egina dago. Hau da, idazlan bat egiterako momentuan erraztasun handiago bat izateko. Ikasle gehienak idazlan bat egiterakoan, egiten duten azkeneko gauza hitzak kontatzea da, produktu honi esker, hau saihesten da, boligrafoa hitz zenbatzaile bat duelako. Boligrafoa arina izango da, produktua egindako elementuak egokiak eta ez oso pixutsuak direlako. Gainera web gunetik pantaila aldeztatzeko aukera izango dute erosleak, honen ondorioz, gure boligrafoa eskuin eskuarekin zein ezker eskuarekin idazten duten edozein pertsonarentzat eginda dago.

Boligrafoaren diseinua hurrengo hau da:



Ez kezkatuta egoteko eta erraztasuna izateko baliabideak hurrengo hauek dira:

- Automatikoki hitzak kontatzeko erraztasuna ahalbidetzen du boligrafo honek. Pantaila txiki bat izango du boligrafoaren goiko aldean, aldamenean hain zuzen. Hemen dena ikusteko aukera egongo da, zenbat hitz idazten hari zaren adibidez, horrela azterketetako idazlanetan hitzak zenbatzerakoan denbora ez galtzeko, gehienetan, kezkatzen zaituen gauza garrantzitsuena denbora delako.
- Tintaren portzentaia ikusteko aukera izango duzu boligrafoaren beheko aldearen aldamenean, hau da, tinta asko edo gutxi ikusteko ahalmena duzu. Horrela, idazlan bat egiterako orduan prest zaude zure boligrafoarekin tinta beteta izanda eta kezkarik gabe ea tintarik gabe geldituko zaren edo ez. Gainera boligrafoak abisatzen dizu portzentai gutxi duela. Bestalde, beste kolore ezberdin bat erabili dezakezu edo ez baduzu kolorea aldatu nahi, gure web orrian kolore gehiago eros dezakezu. <https://oihanebrosalaplaza.wixsite.com/website>

- Hurrengo ataletan, pertsonalizatzea nabarmentzen dugu gure produktuan.
Tinta kolore ezberdinak bereizita daude gure produktuan, kolore beltza, gorria, berdea, urdina, etab...
Kolore dezberdineko zorroak daude, hau da, gure bezeroak boligrafoa gordetzeko zorro ezberdinak erabiltzeko aukera izango dute. Bestalde, gordetzeko kaxa modelo ezberdinak saltzen ditugu produktuarekin batera, hainbat modelo eskeintzen dituena. Adibidez, karratu formako kaxa, zilindro formako kaxa. Gainera, produktuaren zorroa hainbat motatakoa dago, ehunezko zorroa, plastikozko zorroa, silikonazko zorroa, etab...